

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1452

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 19koa, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarena, garapenerako lankidetzaren kargurako programetarako 2014rako laguntzen deialdia iragar-tzen duena.

Ebazpen honen bidez, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuan biltzen diren aurreikuspenak betetzen dira 2014rako. Dekretu horrek Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen ditu (maiatzaren 10eko EHAA). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, zeina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar baitute.

57/2007 Dekretuak garapenerako lankidetzaren programetarako laguntzak arautzen ditu, pobrezia-aren aurkako borrokan nabarmen laguntzen duen tresna gisa, egitura-aldaketak sustatzen dituzten garapenerako prozesu endogenoek osaturik.

Dekretu horretan arautzen diren programen ezaugarriek aukera ematen dute azterketa osoa-koak egiteko, baita adierazle sendo eta errealistak ezartzeko eta epe luzeagorako estrategiak planteatzeko ere. Estrategia horiek ikuspegi integral bati jarraikiz heldu behar diote garapenari, prozesuak sektore-arlo jakin batean kokatuz (gizartearen lehentasunezko beharrak, herri-ekonomia, tokiko boterea, giza eskubideak, kultura-nortasuna), baina zeharkako lerroak ere bilduz (generoa, tokiko ahalmenak, parte-hartzea, antolaketa, giza eskubideak eta iraunkortasun ekologikoa), eta ez jarduera puntual eta bereizi gisa, garapen-prozesu osoaren funtsezko eta beharrezko elementu gisa baizik.

Halaber, dekretu horren 75. artikuluan ezartzen duenez, laguntzen deialdia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak egingo du, eta hauek adieraziko: zenbat diru bideratzen den; eska-bideak aurkezteko modua, lekua eta epea; baremazio-irizpideak; Eusko Jaurlaritza eta erakunde esleipendunaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren inprimakia eta eredia. Kasu honetan, eta lehendakariaren 20/2012 Dekretua –abenduarien 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen– eta 187/2013 Dekretua –apirilaren 9koa, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen– batera aplikatuz, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen agintaritza.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman behar diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak (5/2008 Legearen 11.2 artikulua, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena, eta 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua, martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duena).

Deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezte Kontseiluaren oniritzia jaso zuen 2014ko urtarrilaren 5ean egindako bilkuran.

Bestalde, deialdi honekin, erakunde interesdunek programa honek eskatzen dituen izapidetzeak modu telematikoan egin ahal izateko aukeran aurrera egin nahi da, hori ahalbidetuko duen prozedura bat txertatuz, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da, 2014ko ekitaldirako, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak aurreikusitako programetarako laguntzetarako deialdia egitea. Garapen Lankidetzarako Funtzaren kargurako programetarako laguntzak arautzen ditu dekretu horrek (maiatzaren 10eko EHAA).

2. artikulua.– Diru-hornidura.

Deialdi honetara 8.000.000 euro bideratutako da guztira.

Zenbateko hori handitu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta eta laguntza horiek ebatzi aurretik Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz amaitu gabeko beste diru-iturririk dagoen ikusita. Hala gertatzen bada, EHAAan emango da horren berri, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabeteko izango da, ebazpen hau EHAAan argitaratzen denetik.

2.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, behar bezala betetako eskabide normalizatuaren bidez –ebazpenari erantsirik–, Herritarrei Laguntzeko Bulegoan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia egoitzan, edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan –30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena–.

3.– Eskabideak eskabide normalizatuaren bidez egingo dira, zeina ebazpenari erantsirik baitago, eta agentziaren web-gunean ere eskuragarri: www.elankidetz.euskadi.net

4.– Eskabideak, eranskinetan zehaztutako agiriekin batera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara helarazi beharko dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Nafarroa kalea 2
01007 Vitoria-Gasteiz

4. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari dagozkio diru-laguntza lerro honen kudeaketa-lanak. Agentziaren antolakuntza- eta jarduera-araudia ezartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 17.a) artikuluan ezartzen duenez (apirilaren 9ko EHAA), Agentziaren Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak egingo ditu laguntza-eskabideen analisi teknikoa eta balorazioa; gero, horren berri emango dio Balorazio Batzordeari, zeinak, horretarako bildu eta gero, dagozkion laguntzak ematea proposatuko baitu.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Balorazio Batzordeko kide dira Ekonomia, Aurrekontua eta Langileak Kudeatzeko Zerbitzuko arduraduna, Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzuko arduraduna, Zerbitzu Juridikoko arduraduna eta Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuko arduraduna. Batzorde hori kide hauek osatuko dute:

– Presidentea:

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Ainara Arrieta Archilla andrea, Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuko arduraduna.

– Batzordekideak:

Nicolas Basarrate Hormaetxea jauna, Ekonomia, Aurrekontua eta Langileak Kudeatzeko Zerbitzuko arduraduna.

Maite Garmendia Eguinoa andrea, Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzuaren arduraduna.

– Idazkaria:

Ana Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

5. artikulua.– Baremazio-irizpideak.

Eskabideen balorazioan erabiliko diren baremazio-irizpideak, laguntza-programa arautzeko dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoaren arabera, II. eranskineko taulan biltzen dira.

6. artikulua.– Agiriak.

a) Eskabidean dauden agiriekin batera, proposatutako Programaren Profilaria buruzko agiria erantsi beharko du erakunde eskatzaileak, ebazpenaren I-A eta I-B eranskinetako eskabide normalizatuaren bidez.

b) Diru-laguntza onartu ondoren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak hitzarmena sinatuko dute, III. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

c) programaren behin betiko formulazioa identifikazio-fasea egin eta gero aurkeztuko da, zeina IV. eranskineko ereduari doituko baitzaio.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko guztirako, arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuena, eta 57/2007 Dekretua, apirilaren 3koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituenak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

EHAAn argitaratu eta biharamuneari jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 19a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

2014ko martxoaren 27a, osteguna



Eskabidea

GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSAREN KARGURAKO PROGRAMETARAKO 2014. URTEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

1. ERAKUNDEA

1.- EAEko erakunde eskatzailearen datuak

| | | |
|--|--|--|
| Erakundearen izena | | |
| _____ | | |
| Identifikazio dokumentua: | _____ | Zenbakia: <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> - <input type="text"/> |
| Erakundearen forma juridikoa: | _____ | Eratze-data: _____ |
| Zein erregistrotan inskribatuta dagoen: _____ | | |
| Erregistro-eguna: _____ | | |
| Helbidea: _____ Zk _____ Sol.: _____ Hizkia: _____ | | |
| P.K.: <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> | Herria: _____ | Lurraldea: _____ |
| Herrialdea: <u>ESPAÑA</u> | | |
| Telefono finkoa | Sakelako telefonoa | Faxa |
| <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> | <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> | <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> |
| Helbide elektronikoa (e-mail): _____ | | |
| Web-orriaren helbidea: _____ | | |
| Programen deialdian parte hartu ahal izateko eskakizunen eta gaitasunen egiaztapena EHAAan noiz argitaratu den: _____ | | |

2.- Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren identifikazio-datuak

| |
|---|
| Izen-abizenak: |
| _____ |
| NAN-zk.: <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> - <input type="text"/> |
| Erakundeak ematen duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza: _____ |
| Eguna eta botereak egiaztatzeko agiria: _____ |

Oharra: Partzuergoa bada, 1. eta 2. atalak bete beharko ditu partzuergoko erakunde bakoitzak, eta partzuergoburu den erakundea ezarriko da lehenik.

3.- Eskabideari buruz jarduteko erakundearen erreferentziako pertsonaren identifikazio-datuak

Izen-abizenak _____

Erakundearen duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza: _____

Telefono finkoa

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

Sakelako telefonoa

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

Faxa

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

Helbide elektronikoa (e-mail): _____

1. ERAKUNDEA**4.- Tokiko erakundearen identifikazio-datuak**

| | | | |
|---|--------------------------------|----------------------|--------------------------|
| Erakundearen izena: _____ | | | |
| Identifikazio dokumentua: _____ | Zenbakia: <input type="text"/> | <input type="text"/> | - <input type="text"/> |
| Erakundearen forma juridikoa: _____ | Eratze-data: _____ | | |
| Zein erregistrotan inskribatuta dagoen: _____ | | | |
| Erregistro-eguna: _____ | | | |
| Helbidea: _____ | | Zk _____ | Sol: _____ Hizkia: _____ |
| P.K.: <input type="text"/> | Herria: _____ | Lurraldea: _____ | |
| Herrialdea: <u>ESPAÑA</u> | | | |
| Helbide elektronikoa (e-mail): _____ | | | |

5.- Tokiko erakundearen legezko ordezkariaren identifikazio-datuak

| | |
|---|------------------------|
| Izen-abizenak: _____ | |
| Zenbakia: <input type="text"/> | - <input type="text"/> |
| Erakundeak ematen duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza: _____ | |
| Eguna eta botereak egiaztatzeko agiria: _____ | |

Oharra: Partzuergoa bada, 4. eta 5. atalak bete beharko ditu partzuergoko erakunde bakoitzak, eta partzuergoburu den erakundea ezarriko da lehenik.

6.- Programaren izena (gehienez hamar hitz)

| |
|--|
| |
|--|

7.- Zein herrialdetan burutuko den

| |
|--|
| |
|--|

2014ko martxoaren 27a, osteguna

8.- Jarduera-sektorea (CAD)

| |
|--|
| |
|--|

9.- Jarduera-sektorea lau urteko gidaplana GLEA

| |
|--|
| |
|--|

10.- Programaren iraupena

| |
|---|
| Hasteko aurreikusitako data: _____ |
| Amaitzeko aurreikusitako data: _____ |
| Osorik burutzeko epea (hilabeteak): _____ |

11.- Programaren finantzazioa

| |
|---|
| Kostua, guztira: _____ |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako ekarpena: _____ |
| Tokiko moneta euroen truke aldatzeko erabilitako kanbio-mota: |
| Tarteko dibisa: _____ |
| Tokiko dibisa 1: _____ |
| Tokiko dibisa 2: _____ |

Emandako/dauden edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

| | Emandakoa/Dagoena | Eskatutakoa |
|---|-------------------|-------------|
| EAEko erakunde eskatzailea | | |
| Tokiko erakunde bazkidea | | |
| Xede-biztanleria | | |
| Bestelako ekarpenak (baterako finantzaketa iturri bakoitzeko lerro bat sartu) | | |
| | | |

2014ko martxoaren 27a, osteguna

12.- Erantzukizunpeko adierazpenak

- Erakunde eskatzaileak ez du izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere, eta berariaz erreferentzia egingo zaie sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarritakoei, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean xedatutakoarekin bat etorritz.
- Eskabide honetako datuak eta erantsitako agiriak egiazkoak dira.
- Erakunde eskatzaileak laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezarritako eskakizunak betetzen ditu, hori egiaztatzen duten agiriak baditu eta diru-laguntzaz gozatzeari datxekion aldian horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.

13.- Onartutako balidazioak

- Nire adostasuna adierazten dut Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiazta dezan, behar adina aldiz, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direlako egiaztapena.

14.- Konpromisoak

- Diru-laguntza esleitzeko eskatutako eta aintzat hartutako eskakizunei eragiten dien edozein aldaketaren berri Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinarazteko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.

15.- Aurkeztutako agiriak (markatu X batekin dagokion laukitxo)
(*) Nahitaezko eremua

- 1.- I-A eranskina (programaren profila) euskarri digitalean, ahal bada CDan, alderdi guztiak behar bezala beteta, bertan zehaztutako argibideen arabera. (*)
- 2.- I-B eranskina (programaren aurrekontu adierazgarria) euskarri digitalean, ahal bada CDan, alderdi guztiak behar bezala beteta, bertan zehaztutako argibideen arabera. (*)
- 3.- Identifikaziorako erreferentzia-zehaztapenak, euskarri digitalean, ahal bada CDan. (*)
- 4.- Arazoen zuhaitza, euskarri digitalean, ahal bada CDan. (*)
- 5.- Erakunde eskatzaileak bere proposamena egiaztatzeko interesgarritzat jotzen dituen bestelako agiriak.

Zehaztu:

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Erakunde eskatzaileari buruzko agiriak

- 1.- Azalpen-memoria, baldin eta erakunde eskatzaileak EAEn ordezkaritza iraunkorra badu. (*)
- 2.- Azalpen-memoria, baldin eta erakunde eskatzaileak programa burutuko den herrialdean ordezkaritza iraunkorra badu. (*)
- 3.- EAEko erakunde eskatzaileen partzuergoa bada, partzuergoaren egiaztapen-agiriak, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 18., 19., 20., 21. eta 22. artikuluen arabera. (*)
- 4.- EAEko erakunde eskatzaileen partzuergoa bada, partzuergoaren hitzarmenaren kopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera. (*)

Tokiko erakundeari buruzko datuak

Aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago soilik aurkeztu beharko dira administrazioako agiriak. Lehenago aurkeztu izan bada, aipatu erreferentziako espedientea:

A) ADMINISTRAZIO-ESKAKIZUNEN AKREDITAZIOA

- 1.- Estatutuen kopia sinplea, egiaztatzeko eskabideak aurkezteko epean amaitu baino gutxienez 5 urte lehenagotik formalki eratuta dagoela. (*)
- 2.- Estatutuen kopia sinplea, egiaztatzeko eskabideak aurkezteko epean amaitu baino gutxienez 5 urte lehenagotik dagokion erregistroan formalki inskribatuta dagoela. (*)
- 3.- Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena. (*)
- 4.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria. Ezin badira ziurtagiri horiek eskuratu, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen erantzukizunpeko adierazpena emango da.

B) FINANTZA-GAITASUNAREN AKREDITAZIOA:

- 1.- Diru-laguntzen emate-ebazpenen kopia sinplea, deialdiaren aurreko bost aurrekontu-ekitaldietan, proposamenean kudeatu nahi den funts berak edo gehiago lortu izana egiaztatzeko. (*)

C) KUDEAKETA-GAITASUNAREN AKREDITAZIOA:

- 1.- Antolamoldearen agiria, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 26. artikuluan deskribatutako elementuei buruzko informazioa biltzen duena. (*)
- 2.- Generoaren inguruko indarreko politika instituzionala. Formulazioa amaitu ez bada eta politika hori ezartzen hasi ez bada, eskakizun hau bete ahal izango da erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezten bada, zeinetan zehaztuko baita ezartzeko prozesua deialdiaren eskabidea aurkeztu baino 36 hilabete lehenago hasiko dela. (*)

D) GAITASUN SOZIALAREN AKREDITAZIOA:

- 1.- Lankidetzeta eta/edo garapenarekin lotura duen koordinakunde, plataforma edo sare bati gutxienez atxikitzen zaiola eta/edo haren kide dela egiaztatzeko agiriaren kopia sinplea. (*)

2014ko martxoaren 27a, osteguna

E) GAITASUN ESTRATEGIKOAREN AKREDITAZIOA:

- 1.- Indarreko plan estrategikoa, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 28.a) artikuluan deskribatutako alderdiak dituena.(*)
- 2.- Jarduerak eta proiektuak deskribatzeko memoria, zeinek gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzen baitute programaren berriazko helburuan.(*)
- 3.- Herri Administrazioen diru-laguntzen emate-ebazpenen kopia sinplea, zeinek egiaztatzen baitute gutxienez hiru urteko EAEko erakunde eskatzailearekiko elkarlan-esperientzia. Ezin badira ebazpen horiek eskuratu, erakunde eskatzailearekiko hiru urteko lankidetzeta-jarduerak gutxienez deskribatzen dituen erantzukizunpeko adierazpena emango da. (*)
- 4.- Jarduerak eta proiektuak deskribatzeko memoria, zeinek egiaztatzen baitute xede-biztanleriarekiko bost urteko esperientzia gutxienez, eta baita herri horrekiko lan-perspektibak ere.(*)

F) PARTZUERGOAK

- 1.- Tokiko erakundearen partzuergoa bada, partzuergoaren egiaztapen-agiriak, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 30., 31., 32., 33. eta 34. artikuluen arabera (*)
- 2.- Tokiko erakundearen partzuergoa bada, partzuergoaren hitzarmenaren kopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera.(*)

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Legez erakundea ordezkatzeko duen eskatzailearen sinadura)

I-A ERANSKINA
PROGRAMAREN PROFILA

GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSAREN KARGURAKO PROGRAMETARAKO
2014. URTEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

0.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (azaldu, 5-10 lerrotan, programaren edukia, programaren funtsezko helburu eta estrategien berri emanez).

1.– PROGRAMA GARATUKO LITZATEKEEN LURRALDEETAN BIZI DIRENEN TESTUINGURUA, EGOERA ETA AURREKARIAK.

1.1.– Kalteberatasunari buruzko azterketa:

(Azaldu zer bilakaera duten programa garatuko litzatekeen lurraldearen kalteberatasunari eragiten dioten faktore nagusiek).

1.2.– Politika eta erakundeei (publikoa eta pribatua) buruzko azterketa:

(Aztertu nolako egiturak, arauak eta balioak dituen programa garatuko litzatekeen lurraldeak).

1.3.– Aurre egiteko baliabideak eta estrategiak:

(Zehaztu zer baliabide dituzten programa garatuko litzatekeen lurraldeetan bizi direnek).

(Azaldu zer estrategia nagusi baliatzen dituzten programa garatuko litzatekeen lurraldeetan bizi direnek kalteberatasun-egoerari aurre egiteko).

1.4.– Giza garapenaren emaitzak:

(Azaldu zer emaitza lortu dituzten programa garatuko litzatekeen lurraldetan bizi direnek kalteberatasun-egoerari aurre egiteko estrategiak baliatuta).

| |
|--|
| |
|--|

2.– ESKU-HARTZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

2.1.– Programaren jardun-esparruaren justifikazioa:

(Azaldu, labur-labur, zer dela-eta proposatu den programa, zergatik den egokia hartan parte hartuko duen komunitatearentzat, eta zehaztu zein arazori eman nahi zaion konponbidea - Arazoen zuhaitza erantsi).

| |
|--|
| |
|--|

2.2.– Alternatibak lehenetsitako jardun-esparruan:

(Azaldu, labur-labur, zer estrategia erabil litezkeen aurreko paragrafoan deskribatutako arazoari/arazoei aurre egiteko).

| |
|--|
| |
|--|

2.3.– Hautatutako alternatibaren justifikazioa:

(Azaldu, labur-labur, zein estrategiari jarraituko zaion, eta, koherentziari eutsiz, oinarritu programa, hartan aurreikusitako esku hartzea justifikatuz).

| |
|--|
| |
|--|

3.– XEDE-BIZTANLERIAREN ETA INTERES-TALDEEN EZAUGARRIAK:

Osatu ondorengo taula programarekin zerikusia duten interes-taldeak zerrendatuz, talde bakoitzaren ezaugarriak azalduz eta talde horietatik programaren xede-biztanleria zein den adieraziz (sexuaren arabera bereizita).

| Xede-biztanleria / interes-taldeak | Ezaugarriak | Beharrak / interesak / itxaropenak | Jarrera / parte- hartze posiblea |
|---------------------------------------|-------------|---------------------------------------|-------------------------------------|
| | | | |

4.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA:

4.1.– Helburu orokorra zehaztu:

(Deskribatu proiektua gauzatzeko lortu nahi den helburu zabalena, modu generikoan edo orokorrean).

4.2.– Zehaztu helburu espezifikoa:

(Deskribatu programak, arrakastaz garatzen bada, xede-biztanleriari berehala ekarriko dion ondorio positiboa.)

4.3.– Helburu espezifikoa aztertzeke kategoriak:

(Adierazleen kategoriak deskribatuko dira, helburu espezifikoa lortzen benetan lagundu den ala ez egiaztatzeko. Adierazle horiek guztiak identifikazio-fasean zehaztuko dira, honako datuok emanez: kantitatea edo kualitatea, denbora, xede-biztanleria eta abar).

4.4.– Zehaztu programaren osagaiak.

4.5.– Osagai bakoitzaren analisi-kategoriak:

(Adierazleen kategoriak deskribatuko dira, helburu espezifikoa lortzen benetan lagundu den ala ez egiaztatzeko. Adierazle horiek guztiak identifikazio-fasean zehaztuko dira, honako datuok emanez: kantitatea edo kualitatea, denbora, xede-biztanleria eta abar).

2014ko martxoaren 27a, osteguna

5.- GUTXI GORABEHERRAKO AURREKONTUA, EUROTAN (aurrekontu-atala eta aurrekontu-sailka)
(Ez ahanztz aurrekontu-atal guztietako gastuetako jasotzea)

| GLEA | Erakunde eskatzailea | Tokiko erakundea eta/edo xede-biztanleria | | Beste ekarpen batzuk | GUZTIRA (EUROTAN) |
|---------|--|---|------------------|----------------------|-------------------|
| | | Balorizatua | Balorizatu gabea | | |
| A) | IDENTIFIKAZIOA | | | | |
| A.I.- | Identifikazio-zerbitzuak | | | | |
| A.II.- | Identifikazioari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | |
| B) | GAUZATZE-EREMUAN EGITEKO GARAPEN-JARDUERAK | | | | |
| B.I.- | Lursailak | | | | |
| B.II.- | Eraikinak | | | | |
| B.III.- | Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea | | | | |
| B.IV.- | Trebakuntza eta prestakuntza | | | | |
| B.V.- | Mikrokredituerako funtsa | | | | |
| C) | TOKIKO ERAKUNDEAK EDO XEDE-BIZTANLERIAREN ERAKUNDEAK INDARTZEA | | | | |
| C.I.- | Erakundeak indartzeko zerbitzuak | | | | |
| C.II.- | Gaikuntzari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | |
| C.III.- | Material didaktikoak | | | | |
| C.IV.- | Ekipoak eta suntsikorrak | | | | |
| D) | GARAPENERAKO HEZKUNTZA | | | | |
| D.I.- | Materialak eta horien garraioa | | | | |
| D.II.- | Garapenerako hezkuntzaren zerbitzuak | | | | |
| D.III.- | Garapenerako hezkuntzari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | |
| E) | PROGRAMA GAUZATZE-EREMUAN KUDEATZEA | | | | |
| E.I.- | Atzerriaratuak langileak | | | | |
| E.II.- | Tokiko langileak | | | | |
| E.III.- | Tokiko erakundearen funtzionamendurako ekipok eta materialak | | | | |
| E.IV.- | Tokiko erakundearen suntsikorrak | | | | |
| E.V.- | Tokiko erakundearen higiezinaren alokairuak | | | | |
| F) | EBALUAZIOA | | | | |
| F.I.- | Ebaluazio-zerbitzuak | | | | |
| F.II.- | Ebaluazioari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | |
| F.III.- | Egiaztatze-zerbitzuak administrazioaren, teknikaren eta finantzen arloetan | | | | |
| G) | PROGRAMA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KUDEATZEA | | | | |
| G.I.- | EAEko administrazio-gastuak | | | | |
| | GUZTIZKOA, ORO HAR | | | | |

6.– BIDERAGARRITASUN-BERMEA:

6.1.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, ezarri diren osagaiak abian jartzeko? (adierazi bideragarritasuna oro har, eta baita osagai bakoitzaren bideragarritasuna ere)

7.– EPE LUZERAKO PROZESUARI LAGUNTZEKO BERMEA:

7.1.– Tokiko erakundeak edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek epe luzerako helbururik ezarri al dute (programa gauzatzeaz haragokorik), xede-biztanleria horri begira eta programaren jardun-esparruetan?

Erantzuna baiezkoa bada, zer helburu eta zer epe ezarri da helburu horiek betetzeko?

7.2.– Zer konpromiso hartu du erakunde eskatzaileak programaren jardun-esparruan xede-biztanleriaren eraldatze-prozesuari laguntzen jarraitzeko, programa hori amaitu ondoren?

8.– ZEHAR-LERROAK:

8.1.– Genero-berdintasuna:

8.1.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak genero-berdintasunaren osagaien?

8.1.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

8.2.– Tokiko ahalmenak:

8.2.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak tokiko ahalmenen osagaien?

8.2.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

8.3.– Parte-hartzea:

8.3.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak parte-hartzearen osagaien?

8.3.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

8.4.– Antolaketa:

8.4.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak antolaketaren osagaien?

8.4.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

8.5.– Giza eskubideak:

8.5.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak giza eskubideen osagaien?

8.5.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

8.6.– Iraunkortasun ekologikoa:

8.6.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak iraunkortasun ekologikoaren osagaien?

8.6.2.– Nola bermatzen dira programan erabili beharreko giza baliabide eta baliabide material, instituzional eta metodologikoak, helburu horiek lortzeko?

9.– GARAPENERAKO HEZKUNTZA:

9.1.– Zer helburu zehatz ezartzen du programak garapen-hezkuntzaren osagaien?

9.2.– Zer lotura ezartzen da, programaren helburuak aintzat hartuta, Iparraldean egin beharreko ekintzen artean?

10.– IDENTIFIKAZIO-ERREFERENTZIAK (programa identifikatzeko erreferentzia-zehaztapenen testu osoa erantsi):

10.1.– Zer emaitza zehatz lortu nahi da identifikazio-prozesutik?

10.2.– Zer metodologiari jarraitu nahi zaio identifikazio-fasean?

10.3.– Nork osatzen du talde identifikatzailea? Zer esperientzia eta ahalmen du talde horrek identifikazioan eta programaren jardun-esparruan?

2014ko martxoaren 27a, osteguna

I-B ERANSKINA
PROGRAMAREN GUTXI GORABEHERRAKO AURREKONTUA (EUROTAN)

GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO FUNTSAREN KARGURAKO PROGRAMETARAKO 2014. URTEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

KANBIO-TASA =

| KONZEPtua | GUZTIRA, TOKIKO DIRUAN | GUZTIRA, EUROTAN | GLEA | Erakunde eskatzailea | Tokiko erakundea eta/edo xede-biztanleria | | Beste ekarpen batzuk | GUZTIRA, EUROTAN |
|--|------------------------------|---------------------|-------------|-------------------------|--|-----------------|-------------------------|------------------|
| | | | | | Balorizatu | Balorizatu gabe | | |
| A) Identifikazioa | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| A.I.- Identifikazio-zerbitzuak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| A.II.- Bidaia eta egonaldiak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B) Garapen-jarduerak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B.I.- Lursailak erostea | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B.II.- Eraikinak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B.III.- Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B.IV.- Trebakuntza eta prestakuntza | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| B.V.- Mikrokredituerako funtsa | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| C) Tokiko erakunde edo xede-biztanleriaren erakundeak indartzea | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| C.I.- Prestakuntza-zerbitzuak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| C.II.- Bidaia eta egonaldiak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| C.III.- Material didaktikoak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| C.IV.- Ekipoak eta suntsikorrak | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

2014ko martxoaren 27a, osteguna

| | | | | | | | | | | | |
|----------------------------------|--|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| D) | Garapenerako hezkuntza | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| D.I.- | Materialiak eta horien garraioa | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| D.II.- | Garapenerako hezkuntzaren zerbitzuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| D.III.- | Bidaiak eta egonaldiak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E) | Programa gauzate-eremuan kudeatzea | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E.I.- | Azteriratuak langileak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E.II.- | Tokiko langileak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E.III.- | Tokiko erakundearen funtzionamendurako ekipoa eta materialak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E.IV.- | Tokiko erakundearen sutsikorak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| E.V.- | Tokiko erakundearen higiezin alokairuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| F) | Ebaluazioa | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| F.I.- | Ebaluazio-zerbitzuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| F.II.- | Bidaiak eta egonaldiak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| F.III.- | Egiaztatze-zerbitzuak administrazioaren, teknikaren eta finantzen arloetan | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| G) | Erakunde eskatzaileak programa kudeatzea | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| G.I.- | Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-gastuak | | | | | | | | | | 0,00 |
| GUZTIZKOA, ORO HAR | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

II. ERANSKINA

HAUTAKETA-IRIZPIDE APLIKAGARRIAK

GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO FUNTSAREN KARGURAKO PROGRAMETARAKO 2014. URTEKO LAGUNTZAK

1.– EGOKITASUNA: gehienez 8 puntu.

a) Xede-biztanleriaren egokitasuna (gehienez 4 puntu):

1.– Programa ezarri beharreko lurraldeko edo lurraldeetako xede-biztanleria kalteberatasun-egoeran dagoela frogatzen da, baita pobreziaen aurkako prozesu endogenoetan parte hartzen duela ere (gehienez 4 puntu).

2.– Xede-biztanleria kalteberatasun-egoeran dagoen biztanleria da, baina ez da aztertzen talde egokia den programa ezarri beharreko lurraldean edo lurraldeetan, edo ez da bermatzen pobreziaen aurkako borroka-prozesu endogenoetan parte hartzen duenik (gehienez 2 puntu).

3.– Ez da frogatzen xede-biztanleria talde egokiena denik programa pobreziaen aurkako borrokarako lurralde-prozesuen barruan ezartzeko (0).

b) Esku-hartze estrategiaren egokitasuna (gehienez 4 puntu)

1.– Programaren esku-hartze estrategia xede-biztanleriaren lehentasuna eta garapen-aukera egokia dela erakusten da (gehienez 4 puntu).

2.– Gauzatze-eremua eta alternatiba zergatik hautatu diren ez da argi geratzen, xede-biztanleriarentzat egokia dirudien arren (gehienez 2 puntu).

3.– Gauzatze-eremua edota hautatutako alternatiba ez dira lehentasuna xede-biztanleriarentzat (0 puntu).

2.– KOHERENTZIA (gehienez 8 puntu):

a) Helburu eta osagaien artean (gehienez 4 puntu):

1.– Osagaiek laguntza funtsezkoa eta osagarria ematen dute berriazko helburua lortzeko (gehienez 4 puntu).

2.– Zenbait osagaik ez du funtsezko laguntzarik eskaintzen berriazko helburua lortzeko, edo ez dago helburu hori lortzeko osagai nahikorik (gehienez 2 puntu).

3.– Ez dago koherentzia estu eta zuzenkorik helburu eta osagaien artean edo funtsezko osagarriak falta dira berriazko helburua lortzeko (0 puntu).

b) Atalen artean (gehienez 4 puntu):

- 1.– Programaren atal guztiak (identifikazioa, garapen-jarduerak, erakundeak indartzea eta garapenerako hezkuntza) ongi zehaztuta daude, eta elkarren osagarri direnez koherentziaz elkartzen dira (gehienez 4 puntu).
- 2.– Zenbait atal ez dira modu koherente eta osagarrian integratzen gainerakoekin (gehienez 2 puntu).
- 3.– Atalen artean ez dago koherentziarik (0 puntu).

3.– HELBURUAK ETA OSAGIAK AZTERTZEKO KATEGORIAK (gehienez 6 puntu):

a) Berriazko helburuaren kategoriak (gehienez 3 puntu).

- 1.– Berriazko helburua aztertzeke analisi-kategoria argi, zehatz eta egiaztagarriak ezartzen dira (gehienez 3 puntu).
- 2.– Berriazko helburua aztertzeke analisi-kategoria argi eta zehatzak ezartzen dira, baina nekez egiaztagarriak (gehienez puntu 1).
- 3.– Ez da ezartzen berriazko helburua aztertzeke analisi-kategoria argi, zehatz eta egiaztagarriak (0 puntu).

b) Osagaien kategoriak (gehienez 3 puntu):

- 1.– Osagaiak aztertzeke analisi-kategoria argi, zehatz eta egiaztagarriak ezartzen dira (gehienez 3 puntu).
- 2.– Osagai adierazgarriak aztertzeke ez da analisi-kategoria argi, zehatz eta egiaztagarriak ezartzen (0 puntu).

4.– BIDERAGARRITASUNA (gehienez 8 puntu):

a) Giza baliabideak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarrituta– giza baliabide egokiak baliatuko direla hasieran planteatutako osagaiak garatzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Ezin esan daiteke, adierazitako irizpideei jarraikiz, giza baliabide egokiak baliatuko direnik hasieran planteatutako osagaiak garatzeko (0 puntu).

b) Baliabide teknikoak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarrituta– baliabide tekniko egokiak baliatuko direla hasiera batean planteatutako osagaiak garatzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Ezin esan daiteke, adierazitako irizpideei jarraikiz, baliabide tekniko egokiak baliatuko direnik hasieran planteatutako osagaiak garatzeko (0 puntu).

c) Erakundeen baliabideak (gehienez 2 puntu).

1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarrituta– erakundeen konpromiso esplizitu eta zehatzak baliatuko direla hasiera batean planteatutako osagaien garapenean aktiboki parte hartzeko (gehienez 2 puntu).

2.– Ezin esan daiteke, adierazitako irizpideei jarraikiz, erakundeen konpromiso egokiak baliatuko direnik hasiera batean planteatutako osagaiak garatzeko (0 puntu).

d) Baliabide metodologikoak (gehienez 2 puntu).

1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarrituta– baliabide metodologiko egokiak baliatuko direla hasiera batean planteatutako osagaiak garatzeko (gehienez 2 puntu).

2.– Ezin esan daiteke, adierazitako irizpideei jarraikiz, baliabide metodologiko egokiak baliatuko direnik hasiera batean planteatutako osagaiak garatzeko (0 puntu).

5.– JARRAITUTASUNA (gehienez 6 puntu):

a) Epe luzerako prozesua (gehienez 3 puntu).

1.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleria antolatzen den erakundeek estrategia jakin bat dute programaren jardun-esparruan, eta helburuak ere zehaztu dituzte programa gauzatzeko aldiak aparte (gehienez 3 puntu).

2.– Tokiko erakundeek edota xede-biztanleria antolatzen den erakundeek jarduera edota lan-lerroak planteatzen dituzte programaren jardun-esparruan, behin programa amaitu ondoren (gehienez 2 puntu).

3.– Tokiko erakundeek edota xede-biztanleria antolatzen den erakundeek ez dute estrategiarik edo jarduerarik planteatu programaren jardun-esparruan, behin programa amaitu ondoren (0 puntu).

b) Prozesuari laguntzeko konpromisoa (gehienez 3 puntu):

1.– Erakunde eskatzaileak tokiko erakundeen edota xede-biztanleria antolatzen den erakundeen estrategia sustatzeko konpromiso jakinak eta zehatzak hartu ditu, programaren jardun-esparruan (gehienez 3 puntu).

2.– Erakunde eskatzaileak tokiko erakundeen edota xede-biztanleria antolatzen den erakundeen estrategia sustatu nahi duela aitortu du, programaren jardun-esparruan (gehienez 2 puntu).

3.– Erakunde eskatzaileak ez du esplizituki aitortu erakundeen edota xede-biztanleria antolatzen den erakundeen estrategia sustatu nahi duela, programaren jardun-esparruan (0 puntu).

6.– GENERO-BERDINTASUNA (gehienez 9 puntu):

a) Helburu zehatz eta definituak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Genero-berdintasunaren osagaiak helburu jakinak eta ongi zehaztuak ditu (gehienez 2 puntu).
- 2.– Genero-berdintasunaren osagaiak ez du ongi zehaztutako helburu jakinik (0 puntu).

b) Analisi-kategoriak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Genero-berdintasunaren osagaien markatutako helburuek analisi-kategoria berariazkoak eta egiaztagarriak dituzte (gehienez 2 puntu).
- 2.– Genero-berdintasunaren osagaien adierazitako helburuek ez dute analisi-kategoria berariazko eta egiaztagarriak (0).

c) Bideragarritasun-bermea (gehienez 2 puntu).

- 1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarrituta– giza baliabide eta baliabide tekniko eta metodologiko egokiak baliatuko direla genero-berdintasunaren osagaia garatzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Adierazitako irizpide horiei jarraituz, ezin esan daiteke baliabide egoki guztiak baliatu ahal izango direnik, genero-berdintasunaren osagaia garatzeko (0 puntu).

d) Osagaien arteko koherentzia eta identifikazioa (gehienez 2 puntu):

- 1.– Identifikazioak berariazko metodologiak ezartzen ditu genero-berdintasunaren osagaiaren helburuak aztertzei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Identifikazioak ez du metodologia espezifikorik ezartzen genero-berdintasunaren helburuak aztertzei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (0 puntu).

e) Epe luzerako helburuak (gehienez puntu 1):

- 1.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek estrategia jakin bat dute genero-berdintasunaren osagaian, eta programa gauzatzeko alditik haragoko helburuak ere zehaztu dituzte (gehienez puntu 1).
- 2.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez dute estrategiarik genero-berdintasunaren osagaian, ez eta helburu zehatzik ere programa gauzatzeko alditik harago (0 puntu).

7.– TOKIKO AHALMENAK (gehienez 9 puntu).

a) Helburu zehatz eta definituak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Tokiko ahalmenen osagaiak helburu zehatzak eta ongi definituak ditu (gehienez 2 puntu).
- 2.– Tokiko ahalmenen osagaiak ez du ongi definitutako helburu zehatzik (0 puntu).

b) Analisi-kategoriak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Tokiko ahalmenen osagaien ezarritako helburuek analisi-kategoria espezifikoak eta egiaztagarriak dituzte (gehienez 2 puntu).
- 2.– Tokiko ahalmenen osagaien ezarritako helburuek ez dute analisi-kategoria espezifiko eta egiaztagarriak (0 puntu).

c) Bideragarritasun-bermea (gehienez 2 puntu).

- 1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarritutagiza baliabide eta baliabide tekniko eta metodologiko egokiak baliatuko direla tokiko ahalmenen osagaia garatzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Adierazitako irizpide horiei jarraituz, ezin esan daiteke baliabide egoki guztiak baliatuko direnik, tokiko ahalmenen osagaia garatzeko (0 puntu).

d) Helburu eta azterketen arteko koherentzia (gehienez 2 puntu).

- 1.– Identifikazioak metodologia espezifikoak ezartzen ditu, tokiko ahalmenen osagaiaren helburuak aztertzeko kategoriei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (gehienez 2 puntu).
- 2.– Identifikazioak ez du metodologia espezifikorik ezartzen, tokiko ahalmenen osagaiaren helburuak aztertzeko kategoriei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (0 puntu).

e) Epe luzerako helburuak (gehienez puntu 1):

- 1.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek estrategia jakin bat dute tokiko ahalmenen osagaien, eta helburuak ere zehaztu dituzte programa gauzatzeko alditik harago (gehienez puntu 1).
- 2.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez dute estrategia jakinik tokiko ahalmenen osagaien, ez eta helburu zehatzik ere programa gauzatzeko alditik harago (0 puntu).

8.– PARTE-HARTZEA (gehienez 9 puntu):

a) Helburu zehatz eta definituak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Parte-hartzeari dagokion osagaien, helburu zehatzak eta ondo definituak daude (gehienez 2 puntu).
- 2.– Parte-hartzeari dagokion osagaien ez dago ongi definitutako helburu zehatzik (0 puntu).

b) Azterketa-kategoriak (gehienez 2 puntu):

- 1.– Parte-hartzeari dagokion osagaien adierazitako helburuek azterketa-kategoria espezifikoak eta egiaztagarriak dituzte (gehienez 2 puntu).
- 2.– Parte-hartzeari dagokion osagaien adierazitako helburuek ez dute azterketa-kategoria espezifiko eta egiaztagarriak (0 puntu).

c) Bideragarritasun-bermea (gehienez 2 puntu).

1.– Esan daiteke –betiere tartean zeuden erakundeen iraganeko esperientzietan, lurraldearen edo lurraldeen ezagutzan eta identifikazio egoki batean oinarritutagiza baliabide eta baliabide tekniko eta metodologiko egokiak baliatuko direla parte-hartze osagaia garatzeko (gehienez 2 puntu).

2.– Ezin esan daiteke, adierazitako irizpide horiei jarraituz, baliabide egoki guztiak baliatuko direnik parte-hartze osagaia garatzeko (0 puntu).

d) Helburu eta azterketen arteko koherentzia (gehienez 2 puntu).

1.– Identifikazioak metodologia espezifikoak ezartzen ditu, parte-hartzeari dagokion osagaiaren helburuak aztertzeko kategoriei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (gehienez 2 puntu).

2.– Identifikazioak ez du metodologia espezifikorik ezartzen, parte-hartzeari dagokion osagaiaren helburuak aztertzeko kategoriei buruzko oinarritzko lerroak lortzeko (0 puntu).

e) Epe luzerako helburuak (gehienez puntu 1):

1.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek estrategia jakin bat dute parte-hartzeari dagokion osagaian, eta helburuak ere zehaztu dituzte programa gauzatzeko alditik harago (gehienez puntu 1).

2.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez daukate estrategia jakinik parte-hartzeari dagokion osagaian, ez eta helburu zehatzik ere programa gauzatzeko alditik harago (0 puntu).

9.– ANTOLAMENDUA (gehienez 5 puntu):

a) Antolamendu-testuinguruari buruzko ezagutza (gehienez 2 puntu):

1.– Programak xede-biztanleriaren antolamendu-egoera aztertzen du eta arlo horretako erronka nagusiak planteatzen ditu (gehienez 2 puntu).

2.– Programak azaletik baino ez du aztertzen xede-biztanleriaren antolamendu-egoera (0 puntu).

b) Jardun-ildoak (gehienez 2 puntu):

1.– Programak jardun espezifikoak planteatzen ditu, xede-biztanleriaren antolamendu-egoera hobetzeko (gehienez 2 puntu).

2.– Programak ez du zehazten xede-biztanleriaren antolamendu-egoera hobetzeko jardun espezifikorik (0 puntu).

c) Helburu estrategikoak (gehienez puntu 1):

1.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek antolamendu-arloko estrategia zehatza dute (gehienez puntu 1).

2.– Tokiko erakundeek eta xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez dute antolamendu-arloko estrategiarik (0 puntu).

10.– GIZA ESKUBIDEAK (gehienez 5 puntu):

a) Giza eskubideen testuinguruari buruzko ezagutza (gehienez 2 puntu).

1.– Programak xede-biztanleriaren giza eskubideen egoera aztertzen du eta arlo horretako erronka nagusiak planteatzen ditu (gehienez 2 puntu).

2.– Programak azaletik baino ez du aztertzen xede-biztanlerian giza eskubideen egoera (0 puntu).

b) Jardun-ildoak (gehienez 2 puntu):

1.– Programak xede-biztanleriaren giza eskubideen egoera hobetzeko jardun espezifikoa planteatzen ditu (gehienez 2 puntu).

2.– Programak ez du zehazten xede-biztanlerian giza eskubideen egoera hobetzeko jardun espezifikorik (0 puntu).

c) Epe luzerako helburuak (gehienez puntu 1):

1.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek estrategia bat dute giza eskubideen arloan (gehienez puntu 1).

2.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez dute estrategiarik giza eskubideen arloan (0 puntu).

11.– IRAUNKORTASUN EKOLOGIKOA (gehienez 5 puntu):

a) Testuinguru ekologikoari buruzko ezagutza (gehienez 2 puntu):

1.– Xede-biztanleriak bizileku dituen lurraldeen ingurumen-egoera aztertzen du programak, eta arlo horretako erronka nagusiak planteatzen ditu (gehienez 2 puntu).

2.– Xede-biztanleriak bizileku dituen lurraldeen egoera ekologikoa azaletik baino ez du aztertzen programak (0 puntu).

b) Jardun-ildoak (gehienez 2 puntu):

1.– Xede-biztanleriak bizileku dituen lurraldeen egoera ekologikoa hobetzeko jardun espezifikoa planteatzen ditu programak (gehienez 2 puntu).

2.– Programak ez du zehazten xede-biztanleriak bizileku dituen lurraldeen egoera ekologikoa hobetzeko jardun espezifikorik (0 puntu).

c) Epe luzerako helburuak (gehienez puntu 1):

1.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek iraunkortasun ekologikoari buruzko estrategia bat dute (gehienez puntu 1).

2.– Tokiko erakundeek eta/edo xede-biztanleriaren antolamendu-erakundeek ez dute iraunkortasun ekologikoari buruzko estrategiarik (0 puntu).

12.– GARAPENERAKO HEZKUNTZA (gehienez 7 puntu):

a) Helburu zehatz eta definituak (gehienez 3 puntu):

- 1.– Garapenerako hezkuntzaren arloak helburu zehatz eta ondo definituak ditu (gehienez 3 puntu).
- 2.– Garapenerako hezkuntzaren arloak ez du ondo definitutako helburu zehatzik (0 puntu).

b) Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko lotura (gehienez 4 puntu).

- 1.– Garapenerako hezkuntza arloan zehaztutako helburuek zuzeneko koherentzia dute programaren helburu espezifikoarekin (gehienez 4 puntu).
- 2.– Garapenerako hezkuntza arloan zehaztutako helburuek ez dute zuzeneko koherentziarik programaren helburu espezifikoekin (0 puntu).

13.– IDENTIFIKAZIO-ERREFERENTZIEN ZEHAZTAPENAK (gehienez 15 puntu):

a) Identifikazioaren helburuak: oinarri-ildoak (gehienez 3 puntu):

- 1.– Identifikazio-faserako helburu argi eta zehatzak zehazten dira, eta programaren emaitzetarako oinarritzko lerroa ezartzen da (gehienez 3 puntu).
- 2.– Identifikazio-faserako helburu orokorrak zehazten dira (gehienez puntu 1).
- 3.– Identifikazioaren helburuak ez daude ondo zehaztuta (0 puntu).

b) Oinarritzko lerroaren eta programaren helburuen arteko koherentzia (gehienez 3 puntu).

- 1.– Ezarri nahi den oinarritzko lerroa zeharo koherentea da programarako ezarritako helburuak aintzat hartuta (gehienez 3 puntu).
- 2.– Ezarri nahi den oinarritzko lerroa ez dator guztiz bat programarako ezarritako helburuekin (gehienez puntu 1).
- 3.– Ezarri nahi den oinarritzko lerroak ez dauka zuzeneko harremanik programarako ezarritako helburuekin (0 puntu).

c) Talde identifikatzailea (gehienez 3 puntu):

- 1.– Talde identifikatzaileak identifikazioa egiteko eta identifikaziorako ezarritako helburuak betetzeko ahalmen egokiak dituela frogatu du (gehienez 3 puntu).
- 2.– Talde identifikatzaileak ez du frogatu identifikazioa egiteko eta identifikaziorako ezarritako helburuak betetzeko ahalmen egokiak dituenik (gehienez puntu 1).
- 3.– Talde identifikatzaileak ez du frogatu identifikazioa egiteko eta identifikaziorako ezarritako helburuak betetzeko inolako ahalmenik duenik (0 puntu).

d) Metodologia egokia (gehienez 3 puntu):

1.– Frogatuta geratu da, identifikazio-fasean jarraitu nahi den metodologia egokia dela bai ezarritako helburuetarako, bai lurraldearen testuingururako, bai eta programaren xede-biztanleriarentzat ere (gehienez 3 puntu).

2.– Metodologia oro har baino ez da azaltzen, baina, hala ere egokia dela esan daiteke bai ezarritako helburuetarako, bai lurraldearen testuingururako, bai eta programaren xede-biztanleriarentzat ere (gehienez puntu 1).

3.– Ezin da bermatu identifikazio-fasean jarraitu nahi den metodologia ezarritako helburuetarako, lurraldearen testuingururako eta programaren xede-biztanleriarentzat egokia denik (0 puntu).

e) Kronograma (gehienez 3 puntu):

1.– Identifikazioa egiteko, ongi zehaztutako kronograma aurkeztu da (gehienez 3 puntu).

2.– Identifikazioa egiteko, oro har zehaztutako kronograma aurkeztu da (gehienez puntu 1).

3.– Ez da identifikazioaren kronogramarik aurkeztu (0 puntu).

2014ko martxoaren 27a, osteguna

III. ERANSKINA**EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK
SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN EREDUA**

Vitoria-Gasteiz, 2014ko _____ren _____a.

BERTARATU DIRA:

Batetik, _____, aurrerantzean, erakunde esleipendun izendatuko dena, _____ IFK duena, _____ jaunak/andreak ordezkaturik, erakunde esleipendunaren legezko ordezkari gisa EAEn, eta

Bestetik, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia**, aurrerantzean GLEA izendatuko dena, _____k ordezkaturik, zuzendari gisa.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Elkarri aitortzen diotela ordezkaritza-ahalmena dutela, eta indarrekoztat jotzen dutela ahalmen hori, baita **BATERAKO FINANTZAZIORAKO HITZARMEN** hau sinatzeko behar besteko lege-ahalmena dutela ere. Hori guztia dela-eta, hitzarmena honako klausula hauen arabera gauzatzea erabaki dute:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Hitzarmen hau “_____” garapenerako lankidetzaren kargurako programa gauzatzeko da bakar-bakarrik, _____ espediente-zenbakia eta _____ euroko guztizko aurrekontua duen programa.

Bigarrena.– GLEAk euro _____ ordainduko du, hiru ordainketetan:

1. ordainketa: _____ euro
2. ordainketa: _____ euro
3. ordainketa: _____ euro

Hirugarrena.– Erakunde esleipendunak jakinarazten du programa honen iraupena _____ hilekoa dela. 2014 _____an hasiko da (*dena den, egun hori deialdiaren ebazpenaren egunaren ostekoa eta dagokion aurrekontuko ekitaldiaren amaieraren ostekoa izango da*) eta _____an amaituko.

Laugarrena.– Erakunde esleipendunak jakinarazten du lehenengo Jarraipen Batzorde Mistoaren elkartze-eguna, identifikazio-fasea egin eta gero, hau dela: _____. Programaren behin betiko formulazioaren agiria Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari bidali beharko zaio egun hori baino 15 egun lehenago, gutxienez.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Bosgarrena.– Erakunde esleipendunak Programaren Jarraipen Batzorde Mistoan dituen legezko ordezkariak honako hauek dira: _____ (*aditzera eman bi pertsonak*).

Seigarrena.– Erakunde esleipendunak:

- Hitzarmen honetako eta 57/2007 Dekretuaren arabera indarreko araudiko baldintzak beteko ditu (57/2007 Dekretua, apirilaren 3koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtzaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena). Horrez gain, programetarako laguntzen 2014ko deialdiaren ebazpena ere beteko du.
- Jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu, protokolo narratibo-finantzarioari jarraikiz, www.elankidetz.euskadi.net eta protokolo horretan emandako argibideen arabera. Lehenengo txostena, 2. ordainketa eskatzeko unean (emandako diru-laguntzaren guztizkoaren % 20 justifikatu eta gero, gutxienez); bigarrena, 3. ordainketa eskatzerakoan (emandako diru-laguntzaren guztizkoaren % 60 justifikatu eta gero, gutxienez), eta azken txostena, programa gauzatzen bukatu eta ondorengo sei hilabeteetan.
- Aipatu dekretu arautzailearen 89. artikuluan ezarritakoarekin bat, GLEAri programa funtsean alda dezala eskatuko dio, honako aldaketa hauetakoren bat egin nahi izanez gero:
 - Aldaketa xede-biztanlerian, aurrekontu-ondorioak edozein izanik ere.
 - Proiektuaren kokapenean edozein aldaketa egitea.
 - Tokiko erakundea aldatzea.
 - Helburua eta emaitzak aldatzea.
 - Programa luzatzea eta atzeratzea burutzapenean.
 - Gastuak % 10 baino gehiago aldatzea dagokion partidan eta atalean aurreikusitako zenbatekoarekiko.
 - Programaren guztizko kostua aldatzea.
- Halaber, jarraipen-txostenetan, gertatzen diren aldaketa ez funtsezkoen berri emango da.

Zazpigarrena.– Erakunde esleipendunak _____ kontu-korrontea erabiliko du (*kontu-zk., banku-erakundearen izena eta helbidea*) GLEAren diru-laguntza hau kudeatzeko berariazko kontu gisa (eurotan). GLEAk ordainketa bakoitzean transferitutako diru-kopurua berariazko kontu horretara intsuldatuko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako fondo-mugimendurik egin.

Zortzigarrena.– Erakunde esleipendunak jakinarazten du tokiko erakundeak (_____) _____ kontua erabiliko duela (*kontu-zk., banku-erakundearen izena eta helbidea*) berariazko kontu gisa, GLEAren diru-laguntza kudeatzeko proiektua gauzatu den herrialdean. Erakunde esleipendunetik transferitutako diru-kopuruak tokiko erakundearen berariazko kontura intsuldatuko dira, dagokion dibisan.

Bederatzigarrena.– Interesdunak dirua sartu eta gero, erakunde esleipendunak programarentzako berariazko kontura transferitu beharko du, eta arretatsu jardun beharko du funts hauek erabiltzerakoan programaren helburuak lortzeko soilik aplikatzeko, ahalik eta egokien. Tokira egin beharreko transferentzia zatitzen bada edo aurretiaz ezaguna den bolada batez ezinbestean atzeratzen bada, GLEAk kudeaketa hobetzeko jasotako funtsak inbertitu ahal izango dira, GLEAk berak hala baimenduz gero, betiere. Dena den, programan ezarritako helburuak betetzera bideratu beharko dira funts hauek. Funtsak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri, erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago. Honako baldintza hauek gertatzen badira bakarrik onartzen da funtsak inbertitzea:

- Arrazoi batek justifikatzen badu dirua tokira transferitu ezin izatea.
- Aldez aurretik badakigu arrazoi horrek zenbat iraungo duen.
- Inbertsioak ez badakar diru-laguntza entitate esleipendunak kontrolatu ezin ditzakeen kanpo-faktoreen eraginpean jartzea.
- Inbertsioa bermatuta badago, hau da, inbertitutako diru-kopurua murrizterik ez badago.

Hamargarrena.– Erakunde esleipendunak egoitzako eta tokiko berariazko kontuetan sortzen diren interesak aplikatuko ditu, edozein partidatan sortuak, salbu eta erakunde esleipendunaren programaren kudeaketetakoetan, eta GLEAren ekarpen bezala agertuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea kontusail batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, finantza-txostenean, GLEAren kargurako kontusailetatik lortutako interesak jasoko dira, agentzia horrek bere gastua kontu horiei egotzi badie, betiere.

Hamaikagarrena.– Edonola ere, proiektua gauzatzeko epea amaitu aurretik transferitu behar ditu erakundeak funtsak helmugara.

Hamabigarrena.– Erakunde esleipendunak egindako gastuen egiaztagiriak emango ditu txosten bakoitzean, zeinek, ezarritako portzentajeetara heltzean, dagokion ordainketa ekarriko baitute. Tokiko erakundean egindako transferentzien kopiak ere erantsiko dira.

Azken finantza-txostena programaren guztizko kostuen % 100ean justifikatu beharko da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako kostuen egiaztagiriak originalen kopiak izan eta zigiluaren bidez bideratuak beharko dute, bertan programaren izena (edo laburdura), tokiko erakundearen edo erakunde esleipendunaren izena, AVCD/GLEA siglak eta deialdiaren urtea agertuko da. Bideratutako egiaztagiri originalak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren esku egongo dira erakunde eskatzaile esleipendunaren egoitzan edo tokiko erakundearenean.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Gainerako baterako finantzatzaileen egiaztagiriak ez dira txostenetan aurkeztu beharko. Hala ere, egiaztagiri originalak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eskura egongo dira erakunde esleipendunaren egoitzan edo edo tokiko erakundearenean, proiektu bere osotasunean aztertu edo ikuskatu ahal izateko. Dena den, GLEAk hala eskatuz gero, erakunde esleipendunak egiaztagiri horiek bidali beharko ditu erkatzeko.

Hamahirugarrena.– Hitzarmen hau sinatu eta gero, erakunde esleipendunak tokiko erakundearekin baterako erantzukizun-hitzarmen bat sinatuko proiektua garatzeko, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 85. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen da.

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Agentzia.**

Erakunde esleipenduna

Izpta: _____

Izpta: _____

IV. ERANSKINA**GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSAREN KARGURAKO PROGRAMETARAKO
2014. URTEKO LAGUNTZA-ESKABIDEA**

Erakunde esleipenduna:

Programaren izena:

Jarduera-sektorea (CAD):

Jarduera-sektorea Gidaplana GLEA:

Programaren espediente-zenbakia:

Programaren arduraduna:

Telefono-zenbakia:

Posta elektronikoa:

INFORMAZIO OROKORRA

1.- EAE-KO ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK.

- Erakundearen izena:
- IFZ:
- Nortasun juridikoa:
- Eratze-data:
- Zein erregistrotan inskribatuta dagoen:
- Erregistro-eguna:
- Helbidea:
- Telefonoa:
- Posta elektronikoa:
- Programa-deialdietan parte hartzeko baldintzak eta gaitasunak egiaztatu zireneko data:

(*) Partzuergoa bada, 1. eta 2. atalak bete beharko ditu partzuergoko erakunde bakoitzak, eta partzuergoburu den erakundea ezarriko da lehenik.

2.- ERAKUNDE ESKATZAILEAREN LEGEZKO ORDEZKARITZA DUEN PERTSONAREN DATUAK.

- Izen-abizenak:
- NAN:
- Erakundeak ematen duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza:
- Eguna eta botereak egiaztatzeko agiria:
- Ahalduaren sinadura, programaren baterako ardura solidarioa bere gain hartzen duela adierazteko:

3.- TOKIKO ERAKUNDEAREN DATUAK.

- Erakundearen izena:
- IFZ:
- Izaera juridikoa:
- Eratze-data:
- Zein erregistrotan inskribatuta dagoen:
- Erregistro-eguna:
- Helbidea:
- Telefonoa:
- Posta elektronikoa:

4.– TOKIKO ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARITZA DUEN PERTSONAREN DATUAK.

- Izen-abizenak:
- Identifikazio-zenbakia:
- Erakundeak ematen duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza:
- Eguna eta botereak egiaztatzeko agiria:

(*) Partzuergoa bada, 3. eta 4. atalak bete beharko ditu partzuergoko erakunde bakoitzak, eta partzuergoburu den erakundea ezarriko da lehenik.

5.– PROGRAMAREN IZENBURUA (gehienez hamar hitz):**6.– GAUZATZE-HERRIALDEA.****7.– PROGRAMAREN IRAUPENA.**

- Hasteko aurreikusitako data:
- Amaitzeko aurreikusitako data:
- Lehenengo Batzorde mistoaren eguna:
- Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

8.– PROGRAMAREN FINANTZAZIOA.

- Guztizko kostua:
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak hasieran emandako ekarpena:
(*) Partzuergoa bada, erakunde-partzuergo bakoitzeko lerro bat sartu (eskatzaileak eta/edo tokikoak), eta adierazi partzuergoko erakunde bakoitzak kudeatu beharreko eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan).
- Tokiko moneta euroen truke aldatzeko erabilitako kanbio-mota:
Tarteko dibisa.
Tokiko dibisa 1.
Tokiko dibisa 2.

- Emandako/dauden edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

| | Emandakoa/dagoena | Eskatua |
|---|-------------------|---------|
| EAEko erakunde eskatzailea: | | |
| Tokiko erakunde soziala: | | |
| Xede-biztanleria: | | |
| Bestelako ekarpenak (baterako finantzaketa iturri bakoitzeko lerro bat sartu) | | |

PROGRAMAREN BEHIN BETIKO AGIRIA**1.- PROGRAMAREN DESKRIBAPEN LABURRA.**

(Labur azaldu programaren helburu eta estrategia garrantzitsuenak, eta zehaztu xede-biztanleria).

2.- PROGRAMAREN GAI DEN XEDE-BIZTANLERIAREN EGOERA AZTERTU.**2.1.- Identifikazio prozesuaren deskribapen laburra.**

Labur adierazi erabilitako metodologia eta tresnak, identifikazioa gauzatu zuten pertsonak eta identifikazio prozesuan zehar garatutako jarduera garrantzitsuenak. Identifikazio agiria III. eranskin modura aurkeztuko da.

2.2.- Kalteberatasunaren azterketa:**2.3.- Politikari eta erakundeei (publikoa eta pribatua) buruzko azterketa:****2.4.- Aurre egiteko baliabide eta estrategien azterketa:****2.5.- Giza-garapenaren emaitzen azterketa:**

3.– ESKU HARTZEKO ARGUMENTUA.

3.1.– Planifikazio prozesuaren deskribapen laburra.

Labur adierazi erabilitako metodologia eta tresnak, azterketa gauzatu zuten pertsonak eta arazoak edota aukerak aztertzeko prozesuan zehar garatutako jarduera garrantzitsuenak.

| |
|--|
| |
|--|

3.2.– Arazoen / aukeren azterketa aurreratua:

| |
|--|
| |
|--|

3.3.– Estrategien azterketa:

| |
|--|
| |
|--|

3.4.– Programaren esku-hartzeko estrategia:

| |
|--|
| |
|--|

4.– XEDE-BIZTANLERIAREN ETA INTERES-TALDEEN PARTAIDETZA.

4.1.– Osatu taula hau programarekin zerikusirik duten interes-taldeak aipatuz: zehaztu bakoitzaren ezaugarriak, adierazi horietako zein den programaren xede-biztanleria.

| Xede-biztanleria / interes-taldeak | Jarrera / parte-hartze posiblea |
|------------------------------------|---------------------------------|
| | |
| | |

4.2.– Xede-biztanleria zenbatu (sexuaren arabera):

| Komunitatearen kokalekua | Emakumeen kopurua | Gizonen kopurua | Pertsonak, guztira |
|--------------------------|-------------------|-----------------|--------------------|
| | | | |
| | | | |

5.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA.

5.1.– Plangintza-matrizea egiteko prozesuaren deskribapen laburra:

Labur adierazi erabilitako metodologia eta tresnak, planifikazioa gauzatu zuten pertsonak eta planifikazio prozesuan zehar garatutako jarduera garrantzitsuenak.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

5.2.– Helburu orokorra:

5.3.– Berriazko helburua:

5.4.– Berriazko helburuaren adierazleak, horiek egiaztatzeko iturriak eta helburua lortzeko beharrezko baldintzak:

Adierazleak:

Egiaztatze-iturriak:

Suposizioak / hipotesiak:

5.5.– Osagaiaren helburuak:

Programaren esku-hartzearen logika argiago baterako, helburu-maila txikiagoa sar daiteke, osagaiaren helburuak. Osagaiaren helburu batek argiki islatzen du biztanleriaren jardueran edo gaitasunetan itxarondako aldaketa programak lagundu nahi duen esparru jakin batean.

5.6.– Osagaiaren helburuen adierazleak, horiek egiaztatzeko iturriak eta helburuak lortzeko beharrezko baldintzak:

Adierazleak:

Egiaztatze-iturriak:

Suposizioak/hipotesiak:

5.7.– Programaren emaitzak:

5.8.– Emaitzen adierazleak, horiek egiaztatzeko iturriak eta emaitzak lortzeko beharrezko baldintzak:

Adierazleak:

Egiaztatze-iturriak:

Suposizioak/hipotesiak:

6.– ZEHAR-LERROAK.

6.1.– Genero-berdintasuna:

6.1.1.– Zein helburu zehatz ezarri dira programan genero-berdintasunaren zehar-lerrorako?

6.1.2.– Berariazko zein estrategia jarriko dira abian helburu horiek lortzeko?

6.1.3.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

6.2.– Tokiko ahalmenak:

6.2.1.– Zein helburu zehatz ezarri dira programan tokiko ahalmenen zehar-lerrorako?

2014ko martxoaren 27a, osteguna

6.2.2.– Berariazko zein estrategia jarriko dira abian helburu horiek lortzeko?

6.2.3.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

6.3.– Parte-hartzea.

6.3.1.– Zein helburu zehatz ezarri da programan partaidetzaren zehar-lerrorako?

6.3.2.– Berariazko zein estrategia jarriko da abian helburu horiek lortzeko?

6.3.3.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

6.4.– Antolaketa:

6.4.1.– Zein jardunbide proposatzen du programak antolaketaren zehar-lerrorako?

6.4.2.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

6.5.– Giza eskubideak:

6.5.1.– Zein jardunbide proposatzen du programak giza eskubideen zehar-lerrorako?

6.5.2.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

6.6.– Iraunkortasun ekologikoa:

6.6.1.– Zein jardunbide proposatzen du programak ekologia-iraunkortasunaren zehar-lerrorako?

6.6.2.– Zehaztu zehar-lerroa nola zehazten den planifikazio eta aurrekontu nagusian.

7.– PROGRAMAREN JARDUERA ZEHATZAK.

7.1.– Programaren jarduerak:

7.2.– Aldez aurreko baldintzak:

7.3.– Jardueren egutegia:

Taula batean, jarduerak zerrendatu, iraupena (hilabeteak) eta berekin dakartzan baliabideak zehaztuta.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

8.- PROGRAMAREN ALDI OSORAKO AURREKONTUA: ATALKA, PARTIDAKA ETA ARLOKA:

| | GLEA | Erakunde eskatzailea | Tokiko erakundea eta/edo xede-bizitanleria | | Beste ekarpen batzuk | GUZTIRA |
|-------|--|----------------------|--|-----------------|----------------------|---------|
| | | | Balorizatu | Balorizatu gabe | | |
| A | IDENTIFIKAZIOA | | | | | |
| A.I | Identifikazio-zerbitzuak | | | | | |
| A.II | Identifikazioari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | | |
| B | GAUZATZE-EREMUAN EGITEKO GARAPEN-JARDUERAK | | | | | |
| B.I | Lursailak | | | | | |
| B.II | Eraikinak | | | | | |
| B.III | Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea | | | | | |
| B.IV | Trebakuntza eta prestakuntza | | | | | |
| B.V | Mikrokredituerako funtsa | | | | | |
| C | TOKIKO ERAKUNDEAK EDO XEDE-BIZITANLERIAREN ERAKUNDEAK INDARTZEA | | | | | |
| C.I | Erakundeak indartzeko zerbitzuak | | | | | |
| C.II | Gaikuntzari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | | |
| C.III | Material didaktikoak | | | | | |
| C.IV | Ekipoak eta suntsikorrak | | | | | |
| D | GARAPENERAKO HEZKUNTZA | | | | | |
| D.I | Materialak eta horien garraioa | | | | | |
| D.II | Garapenerako hezkuntzaren zerbitzuak | | | | | |
| D.III | Garapenerako hezkuntzari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | | |
| E | PROGRAMA GAUZATZE-EREMUAN KUDEATZEA | | | | | |
| E.I | Atzerriaratuak langileak | | | | | |
| E.II | Tokiko langileak | | | | | |
| E.III | Tokiko erakundearen funtzionamendurako ekipoak eta materialak | | | | | |
| E.IV | Tokiko erakundearen suntsikorrak | | | | | |
| E.V | Tokiko erakundearen higiezinaren alokairuak | | | | | |
| F | EBALUAZIOA | | | | | |
| F.I | Ebaluazio-zerbitzuak | | | | | |
| F.II | Ebaluazioari lotutako bidaiak eta egonaldiak | | | | | |
| F.III | Egiaztatze-zerbitzuak administrazioaren, teknikaren eta finantzen arloetan | | | | | |
| G | PROGARAMA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KUDEATZEA | | | | | |
| G.I | EAEko administrazio-gastuak | | | | | |
| | GUZTIZKOA, ORO HAR | | | | | |

9.– BIDERAGARRITASUNA, IRAUNKORTASUNA ETA JARRAITUTASUNA.

9.1.– Bideragarritasuna (teknikoa, materiala, instituzionala eta metodologikoa).

9.2.– Iraunkortasuna.

9.3.– Jarraitutasuna.

10.– GARAPENERAKO HEZKUNTZA.

10.1.– Zein helburu, emaitza eta jarduera planteatzen ditu programak garapen-hezkuntzarako?

10.2.– Zer lotura ezartzen da, programaren helburuak aintzat hartuta, Iparraldean egin beharreko ekintzen artean?

11.– PROGRAMAREN KUDEAKETA, JARRAIPIEN ETA EBALUAZIO SISTEMA.

11.1.– Programaren kudeaketa.

Zeintzuk dira programa kudeatuko duen organoa osatzen duten pertsonen egitekoak eta erantzukizunak (koordinazioa, plangintza, jarraipena, baliabideak administratzea, komunikazioa...)?

Zein mekanismo ezarriko da erabaki estrategikoak eta operatiboak hartzeko? (nork hartuko ditu erabakiak programan, zein erabaki hartuko du bakoitzak, nola hartuko dira erabaki horiek, eta programan inplikaturik daudenek zein obligazio, eskuduntza edo eskubide izango dituzte)?

Komunikaziorako zein bide formal ezarriko da (euskal erakundeak –kudeaketa unitatea– tokiko erakundeak – xede biztanleria)?

11.2.– Programaren jarraipena.

Helburu eta emaitza bakoitzeko, aurrerapenaren adierazleak –dagozkionak– adierazi. Zehaztu dagozkion aurrerapenari buruzko adierazleak helburu eta emaitza bakoitzeko. Aurrerapen-adierazle bakoitza, eta deskribatu berariazko helburuaren, osagaien helburuen eta emaitzen adierazleak neurtzeko beharrezko informazioa bildu eta antolatzeko prozesua (nork erabiliko duen zein metodo informazioa bildu/laburtzeko, zein maiztasunarekin eta zenbat, non eta norekin).

Nola egingo da suposizioak gauzatzearen jarraipena?

11.3.– Programaren ebaluazioa.

(Eranskin gisa erantsi programari buruz kontratatuko den ebaluazioaren erreferentzia-terminoen testu osoa).

11.3.1.– Nolako ebaluazioa nahi da, eta zergatik? (tartekoa/prestakuntzakoa edo sumatibo ohi/ondokoa; diseinukoa, prozesu eta/edo produktua, eta abar)

11.3.2.– Zein partaidetza edukiko du ebaluazioaren esleipena duen erakundeak? Eta tokiko bazkideek? Eta xede-biztanleriak?

11.3.3.– Zein ebaluazio-irizpide sartu nahi dira eta zeini eman nahi zaie lehentasuna? Justifikatu zergatik.

11.3.4.– Zein profil izan beharko dute eta zein zeregin izango dute programaren kanpoko ebaluazio-taldeko kideek? Zergatik?

11.3.5.– Datuak biltzeko eta aztertzeko zein metodologia eta tresna erabiliko dira ebaluazioan (dokumentu bidez, tailerrak, elkarrizketak, zeharkako behaketa, eta abar)? Bakoitzak zein pisu izatea aurreikusten da?

2014ko martxoaren 27a, osteguna

11.3.6.– Zein mekanismo aurreikusten dira ebaluazioaren ondorioen zabalkundea egiteko, gomendioak praktikan jartzeko eta horien jarraipena egiteko (erakunde esleipendunean, partzuergoan elkartutako euskal erakundeetan, tokiko bazkideetan, xede-biztanlerian eta, oro har, sektorean)?

11.3.7.– Ebaluazioari eragin diezaiokeen zein muga aurreikusten da? Zein ezaugarrik eragin diezaioke ebaluazioari, eta ze neurri hartuko da horiek txikiagotzeko?

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA

| | | |
|-------------|---|--|
| 1.- | Arazoen zuhaitza / helburuen zuhaitza. | |
| 2.- | Planifikazio nagusia (garapen jarduerak eta garapenerako hezkuntza). | |
| 3.- | Egindako identifikazioaren agiria. | |
| 4.- | Oinarrizko lerroko agiria. | |
| 5.- | Ebaluazioaren erreferentziako zehaztapenak (bitartekoa/amaierakoa). | |
| 6.- | Programaren aurrekontu xehea partidaka/arloka/azpiarloka, ezarritako ereduaren arabera. | |
| 7.- | Programaren aurrekontu xehea jardueraka, ezarritako ereduaren arabera. | |
| 8.- | Frogagirien erabilera memoria. | |
| 9.- | Atzerriratutako langileen azalpen-memoria. | |
| 10.- | EAEko erakundeen edo tokiko erakundeen, hala badagokio, hitzarmenari buruzko dokumentazioa. | |
| 11.- | Programaren bideragarritasuna justifikatzeko kasu bakoitzean behar diren agiriak erantsi (erabili aurkibide bat): eraikinen planoak; tokiko erakundeen hitzarmenak /abalak /gutunak; produkzio-programen kasuan, ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruzko azterlanak, tokiko merkatuari buruzko azterlanak, etab.; programaren etorkizuneko bideragarritasuna egiaztatzen garrantzitsua izan daitekeen beste edozein dokumentu. | |